

# MAIATZAREN 19a

Pena da. Gutxi falta izan zaio. Baina ezkerrek ez du agintea hartu, oraingoan. Itxaropen egin behar.

Berotasunean idazten dut. 19ko gauean bertan, irratiko komentarioak entzuten ari naizelarik. Une honetan batez ere sentimendu bat agertu nahi nuke, Frantzia erdiak duena, hain zuzen. Izan ere Frantziaren erdiak Mitterrand-en alde jokatu du. Botu batzuk gehixeago eta Mitterrand genuen lehendakari berria.

Baina hauteskunderak eskuina eman du garailu. Eskuina bai. (Titulu hori ez dute maite irabazleek). Eskuin berritua eta modernua, baina eskuina. Hori ukatzea gaizt iruditzen zaizt. Giscard-i bere botoa nor eman dion aztertuz ere (eta ez bakarrik programa), hori garbi ikusten da. Frantzia, aspaldi hontan lehenengo aldiz, bitan zatitua dago gaur: ezkerrean eta eskuinean. Lehen ez zen berdin: Gaultismoak gizarte maila guzietatik biltzen bait zituen, hirugarren bide bezala presentatuz. Gaur, ordea, iritzi hartzaileek erakutsi eta aho batez diotenez, gazteen eta langile klaseen botoak ezkerreara joan dira. Zer esan nahi du honek? Etorzikuna eta lan egiten duen Frantzia ez dagoela errerepresentaturik gobernauan. Hona hemen demokrazia formalaren hutsunerik haundienetako bat.

Baina agintea ez dago gobernauan eta parlamentuan bakarrik. Lantegietan eta kalean bada goaigterik. Hemen dago beste galdera larri bat: zein jokabide hartuko dute sindikatuek? Ez daude ez amore emateko, ez CGT ez CFTD. Borroka-gaiak ez dira falta, eta borroka nahia ere ez, agian. Dagoeneko, Giscard-ek egindako promesen betetzea eskatu du Seguy-k eta Maire-k.

Ezkerrentzat, maiatzaren hemeretzia ez da abia-buru izan abia puntua baizik. Ezkerre batzuk berri bat hasten du. Batasun uka ezina erakutsi du, batasun horri eutsi nahi du gerora ere. Indar biziak berarekin dituen sinismen osoa du ezkerrek.

Orain arte ezkerri bati salatu izan zaio, oposizioan bizitzeko jaioa zela. Oraingoan, ordea, ezker serio, heldu, gobernatzeko prestu, siniesgarri bat ikusi da. Programa bat baduena, gainera. Batasunaren dinamikak eman dio ezkerri bere indarra. Eta ezkerrek pentsatzeko duenez, oraingoan eskuinak bultzadari eutsi badio ere, azkenekoak da.

Giscard-ek aldakuntza agindu du. Aldakuntza? Bai, arrisrik gabeko aldakuntza. Sinisgogor da ezkerria hortan eta arrazoirik ez zaio falta. Diotenez, arrisrik gabeko aldakuntza ez baina aldakuntzarik gabeko arriskua da, Giscard-ekin gertatuko dena. Borrokaerik hoberenekin ere Giscard-ek ez omen du gauza haundirik egiterik. Hauzitan dagoena ez Giscard gizona baizik Giscard-en sistim bait da. Idazten ari naizelarik, irratitik entzuten dut Nixon-ek telefonoz dei egin diola Giscard-i zorianik beroenak emateko. Agian zerbaite adierazten du honek ere.

JOAN MARI TORREALDIA

# FRANZIARAKO ERRESUMA BOZKETAK EUROAPAN

Giscard d'Estaing eta Mitterranden arteko bozaldia oso larria eta estua izan da. 422.791 hautakirekin alde batera eta Giscard-ek alde batera irabazi du. Bi politikoa haren arteko gorabeherek, Europalde osoa adiri eduki dute azken orduarte. Europarentzat, Frantziako erresuma-bozketak betidanik ukan dute erakapen sendoa, eta ere gehiago aurtengo honet, bertan ezkerriatek oso gutxiagatik utzi baitu Eliseoko besakia.

Mendebaleko demokrazia guztietan, Frantziar bakarrik datza bertsioaren agintari arazketo benetako hautabidea. Erresuma-Batuko demokrazia eta errepublikanoak. Bretania-Hardiko laborista eta kontserbatorialeak. Alemania Federalerako sozialdemokrata eta kristaudemokrata, Erdi-erzkerreko nahiz-eskubi-erdiak, zenbait salbuespen ezik, politika mota batetako kimuak besterik ez dira.

Eguneko eguneari ere gaurkotan ez betekir dirau Marxek sozialdemokraziaren funtsa, beti ere errepublikan demokrazia erakundeak eskatzen izan da. Ordea ez, kapitala eta alokairuen arteko kontrakarra suntsi dadin; alderantziz, bien arteko haserreak leunduaz, anaiakizozko bateratzen jarri dezaten baizik.

Frantziako krisialdi edo erresuma-bozketak mendebaleko guzia iratzaririk jartzen dute, beste inongo iruresuma burjesetarik baino gehiago iguririk izan da Frantziatik. Politika eta kultura berrien korroteak ere sarritan hemendik heldu zaizkigu. Miel Bakunin iraultzaileak, "Paris Europako kulturaren ardatz", istimatzen zuten.

Frantziari so egin dezaiozun bada beste arazorik ere. Ezkerrearen gehengoak bederik, ez da murgildu gizaklaseen arteko kolaborazio eroso- rra. Sindikatuek berak ere, alderdiak buruakiz korapilotsuen korapiloe- tarririk zink libio nahi dute. Frantziako ezkerria, urte batzuetan zaba- buka eta noraezean ibili ondoren Europa guziko abangoardien aintzi- dari jarri da. Mitterrandek berak ait- ortu: "Frantziako sozialismoak, mundu guztian egizikun sendo bat bete behar du. Gure erresuman demokraziako sozialismoaren eraikitzeak; atzerrian 1789ko matxinadak hainko oihartzuna egin lezake".

Mitterrandek oportunitate berri as- ko urratu ditu, ezkerriaren aspaldi- ko hartsute bat bete du federakunt- za arrunt baten bidez hauteskunde- etara batera presentatuz. Bozketen bidez demokrazi maila asko lortu dai- tekeela frogatu du. Zeren Giscard Erregetu arren, bozketak hauek ezke- rra bere egitazko tokian finkatuago utzi bait dute. Eta agian hauxe izan da Mitterranden ekintzarik funtse- koena. Frantziako azken bozketetako historiari beti negargarriko imagina bat eskaintzen zigun: ezkerriarrek anarkiazko zatiteka lotsagarriak; eta gaultismo boteretsua batirik. Baina 1974 garrenko erresuma-bozketan, gaultismoa hiltamurat eta ezkerria gorantz abiatu dira.

Eztingo dugu uka, testuinguru ho- netan gaultismoak ukan duen eragi- pena ere. Gaultistak guttiengoa eta sarritan lelokeria utsez madarikatu- ak izanik ere, bizimoduaren eta idelen berritzaile izan dira. Ezker klasiako achantzirik zituena antiz pro-

blema berpiztu ditu eta gizarte- xan- hutzailaen mulean dauden zigaza- taska, helburu ustel eta gainontzeo ilurapekak zorrozki salatu. Ezker klasiako errentak, gaultismoa aku- luetzen bat da. Ortodoxoen Irain eta madarikazio itsuegatik, Frantzia be- zalako soziologia duen gizarte ba- tetan beti iraungo du gaultismoak. Eritzi hauetaz, behar bada orok ez gara bat etorriko; baina ene uste- tan Frantziako eskerrari gaultismoa beharrezko zatzaio.

### GAULISMOAREN LILURA ITALTZEN

Oraintsu arte, Bosgarren Errepu- blikaren kondaira, De Gaulle eta gaultismoaren errepublikaldia izan da nagusiki. 1958an De Gaulle "kol- pe" bat leunki emanaz Eliseoko poli- tika tresnak bereganatu zituen. De Gaulle lurralde honetako lokazte- tan sekula hankarik zikindu gabeko gizon goitiaz bat zirudien. Mintzo kizarimatikoari darion mezu zerion, histori garbiko guduaburua, Frantzia- ren salbatzailea, nazionalista porrot- kua, eta gainera tenore hartan, Argelaren soluzinoa berak bakarrik zudakala dirudi zuen. Gobernari guztien nazionalismoa, De Gaulle- rren txabinista bihurtzen zen. Orduarte, errepublikako lehendakari diputadu eta senadorearen batza- rrean aukeratzeko zen, baina De Gaulle bere agintaritza herri-oina- rrian itsatsi nahirik, sistima hura aldatu- rik herri-bozketak ipini zituen. Agintaritza, boterea, simboloa eta legitimitza guztiok denak De Gaulle bere baitan hartuz gobernatzen zuen. Agintaritza goitik zetorkin doak izan simbologizatzen zuten: "Ni hala nahasmena". De Gaulle parlamentoko gizon politikoa bat baino Errege soberano bat gehiago zirudien. Gizaklaseen arteko bor- rokoak deseginaz "Frantzia Handi" bat erakitzen ere pentsatuz, baina utopiazko amets bikain hauen bait- tan zebilen artean uste gabeko re- ferendun batek harakiri eginarazi zion.

De Gaullekin bateratsu gaultis- moa ere italtzen hasi zen Fran- tziar. Azkenaldiotan ikusten dugue- n gobernamolde zenbait, buruja- galdu ondoren, bere kabuz bela- unalditik belaualdira iragan-ezirik hilobirutzeko doaz. Honetan salazaris- moa dugu azken lekuko. Zer penta- tuko ote luke, "ezkerriaren zatike- ta amaikitza". gizon Charles han- diak, egungo U.D.R. eta gaultismo- ren egoera ikusiko balu? Zer esan- nen luke Chaban kandidatzaoren hau- siabatza ezaguturik...?

Eskuindarren ideologia gerla ho- tzaroan ahultzen doa, bere oinarri ideologikoen bitasun-katoliko/ateo edo mundu libre/komunismoa inor gutti illuratzen du. Mundua ez dago gaur manikeismo horiek sines- ketotan. Gaurregun, sobietarren in- basio beldurra aitzaki motela dute, harmadaren gustuak zuritzeko eta O.T.A.N.en jokabidea berritatu be- harretan daude. Arazo honetaz De Gaulle bera, inor baino bizkorrago oharatu bide zen eta anti-amerika- nismo batek eraginik O.T.A.N. Fran- tziatik usatu egin zuten.

Bigarren Munguderrate ondoan, eskuindarrak gizaklaseen borroka- k gaitziteko ausart agertu ziren; bai-

na klasegataskak ez ditu ezabatu. Ez eta bere erresuma barneko al- derdik konunistak ere. Zenbait toki- tan ezik. Azkenaldiotan, puri purian dago "Impeachment" (1) delakoa. Agnew eta Wrandten erortzapenaren ondotik, emeki emeki badao Nixon ere. Ikusmen honetatik, gizon-gaultismoaren beharrekada bi Nixon po- litiko soilen hondamena baino bi po- litika erakunde nagusikoiren birrin- dura gehiago izaki.

Frantziako burjesia kapitalista ohar- tzen zen De Gaullearen "Europa independentea" U.S.A.ren itzilik gabe ezinezkoa zela. Alegia ameri- kanoek Europa, politikaz, ekonomiaz eta militarik menperaturik dauka- la eta alferrikako utopia lorkezitza zela dolarrari hesiak ipintzea. 1968- garrengo Maiatzeko matxinadak Frantziako goren burjesia erabat az- tamuka utzi zuten. Laister ikasi zuen gaultismoaren barne-oreka errotik pipiak jorik zabuka zudakala eta ez zitziola batere onuraker ez politi- ka ez eta ekonomia alorrean Charles handiaren buntura benturatzai- etan ibiltzea. Etenduririk handiena horduantxe sortu zen hots, eman de- zagun 1968garrean De Gaullearen izar diridratsua erabat iluntzen dela.

Gaultismoak, burjesia-kapitalistari ez zion aski babes egiten langile- goaren eskeie eusteko eta menpe- ratzeko. Praxi politiko xumeago eta ekonomia rrazionalizatuago bat, gi- zaklaseen araberrari arras lotuagoa behar zuten burjesialgoak. Eta hau guztia Charles handiaren mitine- tatek ez zetorkion.

Chaban Delmasek berriro gaultis- mo-populara lurpetik ateratzen zuten bere kampanialdiko gohelburu. Baina haren "gizarte berria" giscarza- leek alde orotarik borrokatu dute. U.D.R.en baitan bertan ere Chaba- nen aldarriak ez du nahiko oinarri sozial arkitu. Askok Mitterrand bera hautatzea nahiago zuten.

Giscard d'Estaing-ek politikoa ho- tzaren ospea dakarki. Erresuma-boz- keta hauek zentzugabekeria asko egitera beharrarazten dituzte kan- didato ak eta beldur gara Giscard-i ere horrelako zerbaite ez ote zaion gertatuko. Hitz asko esan beharrez arkitu da eta gauza asko agindurik utzi ditu. Ez ote zalzikio sobera izan- go? Olof Palmeren hildorai jarraitze- a pentsatzeko omen du. Hala bada urrats asko eman beharko du, bar- ne-azaro pila bat konpondu eta es- tratetia politiko zehatz bat, gaurko Giscard-i somatzen ez zailona ber- auer, eraiki. Ezkerriarrek nolabait ere, ez diote utziko jokabide politikoa itxi bat burutzen. Sindikatuek eguneroko rebeindikazio eta eskaeretan garra- ki salatuko dira. Eta burjesia, te- nore honetan proletargoiari asko es- kartzeko zorian arkitzen da; eta truk- etan eskaintzeko ezer gutxi du. Koiuntura ekonomikoa aldatzen ez bada behintzak.

Bosgarren Errepublikak, gaultis- moaren ilurak lurperaturik oro berri batetan sartu da. Giscard d'Estaing- entzat ez datoz gauzak batere sa- murki.

(1) Impeachment-ek, goi mailako kargu publikoak dituen gizonari egiten zaion prozesu politikoa esan nahi du.

ANATSAN

**MITXELENA**  
 ORDULARI ETA BITXITEGIA  
 Del honi jarraituz bazatuz  
 zure erlojua KANARIAS b r tan  
 balfo merkeago erosiko duzu

Vietkin Arzu, 1 **ONDARRABIA**

**Ez Merkenak**


**Bai Onenak!**

Janari bidez izaten dira ganadu on, Indartsuak, Eta nora jo jakin bear du baserri- tarr burutsuak, Berebiziko aragi pilak; gainera esne putzuak, Otek guztiak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

**FANDERIA**

**ERRENTERRI**

**GIPUZKOA'KO NEKAZARITZA PIZTU ETA INDARTU**



Gure ardurarik aundienetako bat, Gipuzkoa'ko nekazaritza piztu eta indartzea da; era ontan, probintziko aberastasuna geitu egiten bai dugu. Gure laguntzakin:

- maisterrak bere baserria erosi dezake.
- nekazaritzarako tresnak erosi.
- abereentzat dituan ikuliuak berritu.
- kasta oneko beiak erosi.

Gizarte atsegiña goa egin.

**CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA**